

“ZIPITRIA” ABIZENAREN GORA-BEHERAK

“Zipitria” abizenaren etimologia, ez da errezenetakoa. Itzaren itxurari begiratzen badiogu, ez du gure arteko beste abizen askoren antzarik, naiz asierako “zipi” orri begiratzen diogula, naiz bukaerako “tria” orri. Era guztietako “berdiñik gabea” arkitzen degu abizen au.

Ala ere, ezin uka dezaiokegu bere euskal-izaera. Euskalerritik landa ez dago Zapitria'rik. Gure artean erabiltzen da bakarrrik. Guk dakigularik beintzat.

Oraingoa ez bezelako beste itxuraren bat ote-zuan, ba, bere sortzean? erabilliz-erabilliz aldatu zaion beste itxuraren bat? Begiratu baterako, ala dirudi. Eta, izan ere, ala ageri da, abizen bezela izan duan bere bizitzan. Beste era eta itxura bat zuan len. Ibillian-ibillian aldatu zaio era ta itxura ori.

Gai ontan dakidana esango det nik.

* * *

Beste zerbaitetarako abizen au azertu bear izan det orain berriro. Eta lenengotik orixe eritzi nion: iñolaz ere *ab initio* etzala “zipitria” izango, beste zerbait baizik. Eta ola, zerbait asmatu bearrez, metatesis bat gogoratu zitzaidan bapatean: itz onek bere baitan, bere silabaetan, metatesisen bat —toki-aldatzeren bat— izan ote-duan: bere silaba-arteke aldatzeren bat. Itz batean: ZiPiTria ez baño ZiPRItia izana ez ote-dan asieran... Olako metatesisak askotan gertatu bait-dira gure abizenetan. Edonork daki *Alberro* ta *Alberdi*, *Arbelo(a)* ta *Arbeldi*'ren metatesis dirana; berdin baita *Salutregi*, *Salurtegi*'rena, ta *Satrustegi*, *Saturstegi*'rena... Berdin bertatu bait-zitekean baite gure *Zipitria*'rekin ere: metatesis errex baten bitartez, *Zipritia*'tik *Zipitria*'ra igaro izatea, alegia...

Zipritiak ba'lituzke euskeraz bere antzeko beste izen asko; *Azpeitia* ta *Azkoitia* urruti gabe adibidez; ta *Arratia* ta *Albertia* ta oien antzeko beste asko ta asko. Gure abizen batentzako bukaera eroso ba'it-da beti ere *-tia* ori; *-tria* bukaerarik, berriz, ez ba'it-da arkitzen gure izendegietan.

Zipri'ri bagagozkio, berriz, errez izan diteke *Ziprian*'en laburpen bat, *Satur*, adibidez, *Saturnin*'en laburpena dan bezela... *Zipri-tiak* "Ziprian en etxea" esan nai, alegia... Orra or nere lenengo gogokaldia gai onetan.

Gero, ordea, Bataio-liburuetan-da saiatu bear izan det; eta pozik asko ikusi al izan det, ez nenbillela ain oker nere asma-kizun ta gogokaldietan. Liburu aietan oraindik goragoko iturburu ta etimologi bat ere arkitu al izan diodala, ezik, abizen berezi oni. Ara.

Andoain-inguruan dago geien zabaldurik abizen au. Eta Andoain go Bataio-liburuetara-ta jo nuan orain berriro, zerbait agitasun-billa nere bearrerako. Eta ara an arkitu nuana.

1738'gn. urteko Confirmatuen Liburua aztertu nuan lenengo; eta ideki orduko izen auxe arkitu nuan: "Joseph de Zufritia"; eta andik laister beste au: "Manuela de Zufritia". Bañan urte berean, beste au: "Francisca de Zufitria"; bañan andik laister, berriz ere, "Francisco de Zufritia". Guzti ori 1738'gn. urtean.

Oar bat merezi du guzti onek: ikusten danez, urte oietan abizen au aldatzen ari da, aldakuntzan sarturik dago bete-betean. Batean *zufri*, bestean *zufi* agiri da. Dana dala —eta au nere lenengo ametsaren aurka— *Zipri*'ra ez baño, *zufi*'ra areago jotzen du; ots, *zubi*'ra edo-ta *zubiri*'ra, *zufiri*'ra (*zufri* = *zuf(i)ri*).

Liburu berean aurrera jarraiturik, bañan beste idazkera batean, 1745'gn. urtean izen oietxek agiri dira: "Maria Angela de Zipitria", eta andik laister "Manuel de Zipritia" (1) (nik amets egin bezelako *Zipritia*); bañan urte berean andik aurrera beti ta beti *Cipitria* agiri zaigu, eta ez, len bezela, *zetadun*, *cedun* baizik.

Olakoxe gora-beherak izan dituala azaltzen zaigu abizen au gure Sakramentu-Liburuetan: Zufriti, Zufitri, Zipriti, Zipitri... Zuzen-bidez bai bait-dirudi *Zufiri* abizenetik sortua dala.

(1) XVII gizaldiko Bataio-Liburuan, *Zipritia* agiri oi da bakarrik luzarroan. *Zipritia* (ots, *Zipritegia*), "casa de Ciprian" baillitzan.

Bukaerako *-tia* orri buruz ere zerbait esan dezagun.

Jakiña da, XIII gizaldiko pergaminoetan Armentia'ren izena *Armentegi* (*Armentehi-eta*) asaltzen dana. Beraz *-tegi* bat, ibillian-ibillian, *-tia* biurtu zaigu. Ala berean, gure artean ikusten degu baita, *Insausti*'ren ondoan bizi dala *Insaustegi* bat ere; eta baita *Beiztegi*'ren ondoan *Beizti* bat ere; eta *Ollakindeg*'ren ondoan *Ollakindia*; *Zumalakarregi*'ren ondoan *Zumalikardi* bizi dan bezelaxe... Oyartzun'go antziñako *Auspaginegi* bat gaur *Espaindi* biurturik ere arkitzen bait-degu... Eta guzti onek auxe dakar: *-tia* ori *-tegi* dala askotan.

Gure *Zufritia* ori ere ez ote-zan izan len, bere asieran, bere sorreran, *Zufiritegi* "casa de los Zufiria"?

Elitzake arritzeko gauza izango.

M. LEKUONA